

# ESPAINIA BIDEGURUTZEAN: KRISI EKONOMIKOA ETA ERREFORMA POLITIKOA 1973-1986

Imanol Satrustegi Andres

Historiako Gradua

Gradu Amaierako Lana

Tutorea: Xabier Lamikiz Gorostiaga

Historia Ekonomikoa



2014-2015 ikasturtea.

UPV-EH

## Laburpena

1973ko petrolioaren bat bateko igoera politikoa gertatu zenean, krisiaren atzetik etorri zen beheraldiak Bigarren Mundu Gerra bukatu zenetik zetorren kapitalismoaren Urrezko Aroa deituriko hazkunde garaia bukarazi zuen. Beheraldiak Espainia oso egoera politiko berezian harrapatu zuen: diktadura luze baten heriotzaren bezperako azken hil hatsetan. Beheraldiak bi elementu berezi ekarri zituen: *estanflazioa* eta langabezia. Estanflazioa ordura arte inoiz gertatu gabeko fenomeno bat izan zen: ekonomiaren uzkurtzearekin batera gertatutako inflazioa. Langabezia ere ezohikoa izan zen krisia lehertu zen arte, frankismoko lan legediak eta hazkunde ekonomikoak langabezia tasa baxu mantendu zuelakoz. Egoerak aldaketa politiko zein ekonomiko sakonak eskatzen zituen, baina eliteak eta biztanleriaren gehiengoak ez zuen haustura erradikalik nahi.

Lan honen helburua garai hartako politika ekonomiko batzuen azaleko errebaso bat egitea litzateke. Orduan eratu zuten sistema politikoa monarkia parlamentario konstituzionala izan zen. Eredu ekonomikoari dagokionez, Europako mendebaldeko ekonomia kapitalista sozialetan jarri zuten arreta. Haiei imitatuz, Europako Elkarte Ekonomikoan sartzea jarri zuten helburu. Baina helburua betetzeko neurri gogor eta gatazkatsuak hartu behar izan zituzten.

Ezin litezke garai honetan gertatu ziren aldaketa ekonomiko guztiak ulertu, garaiko joan-etorri politikoak aztertu gabe. UCD zein PSOEren gobernu ezberdinen joera nagusia orduan mendebaldean erabiltzen ari ziren kutsu neoliberalerako neurriak ezartzea izan ziren.

Hartu ziren neurriek ezkerreko oposizioaren adostasuna behar zuten. Horretarako, ezkerrek frankismoan zituen aldarrikapen iraultzaileei uko egin eta hitzarmen sozialaren alde egin zuen. Orokorrean, jarrera horrek langileen egora kaltetu zuen, baina trukean zenbati onura txiki eta sistema demokratiko eta parlamentario bat lortu zuten.

Orduan burututako politika ekonomikoek eta sortu zen sistema akumulatibo berriak gaur arteko egoera ekonomikoa baldintzatu dute. Espainiako imaginario kolektiboan garrantzi handiko garaia izan zen aztergai duguna. Haren inguruan Trantsizioaren Kultura deiturikoa eratu zen eta erregimen berriaren mito sortzailea mundu guztiarentzako eredugarria izan zela aldarrikatu izan da, oso prozesu gatazkatsua izan zela ezkutatu.

Gaur egun, bizi dugun beheraldi ekonomikoak garai hartan eratu zen erregimena ezbaian jarri eta politika ekonomikoen inguruko duda piztu du. Orduan gertatutakoak, bai politikan bai ekonomian, gizartearen intereseko gaiak bihurtu dira, esparru akademiko zein informaletan.

## AURKIBIDEA

|  |    |
|--|----|
| 1. Sarrera.....  | 5  |
| 2. Krisia eta beheraldiaren hasiera .....                        | 7  |
| 3. UCDren bi agintaldiak .....                                   | 12 |
| -3.1. Legealdi Konstituziogilearen politika ekonomikoa .....     | 13 |
| -3.2. Oreka Aldaketa .....                                       | 16 |
| -3.3. UCDren bigarren agintaldiko neurri ekonomikoak .....       | 18 |
| -3.4. UCDren agintaldien ondorio ekonomikoak .....               | 20 |
| 4. PSOEren Gobernuak .....                                       | 22 |
| -4.1. Doitze makroekonomikoa.....                                | 25 |
| -4.2. Ekoizpenaren doiketa eta onbideratzea.....                 | 26 |
| -4.3. Kapitalismoaren arau berriak.....                          | 28 |
| -4.4. PSOEren gobernuaren politika ekonomikoaren ondorioak ..... | 29 |
| 5. Ondorioak.....  | 31 |
| 6. Bibliografia eta bestelako iturriak:.....                     | 32 |
| Bideoak: .....   | 33 |
| Web orriak: .....  | 33 |
| Hemeroteka: .....  | 34 |

## 1. Sarrera

1973an petrolioaren prezioaren bat bateko igoerak krisi ekonomiko larria eragin zuen munduan. Krisiaren atzetik etorri zen beheraldiak Bigarren Mundu Gerra bukatu zenetik zetorren kapitalismoaren Urrezko Aroa deituriko hazkunde garaia bukarazi zuen. Beheraldi ekonomikoak eragin oso negatiboa izan zuen mundu mailan eta aldaketa ekonomiko sakonak ekarri zituen. Beheraldiak Espainia oso egoera politiko berezian harrapatu zuen. Hori zela eta, krisi ekonomikoak eta garai historikoak zenbait berezitasun izan zituzten.

Esan liteke, zentzu batean behintzat, orduan gertatutakoak, bai politikan bai ekonomian, gizartearen intereseko gaiak direla, esparru akademiko zein informaletan eztabaidagai baitira.

Batetik, gaur egun dugun beheraldi ekonomikoak ordukora begiratzera gonbidatzen gaitu. Bi egoera ekonomiko makurren arteko lotura dezente dagoenez, egoeraren jatorriak eta konponbideak bilatzean alderaketak ez egitea ezinezkoa da. Hala ere, bi krisi oso ezberdin dira ordukoa eta gaur egungoa, guk aztergai duguna eskaintzaren krisi batekin hasi baitzen, eta 2007an abiatu zena, aldiz, eskariaren krisi bat da. Gainera, orduan politika ekonomikoen joera keynesianismotik neoliberalismorakoa zen. Orain berriz, kutsu neoliberalerako neurriak eztabaidan dauden ziklo batean gaude.<sup>1</sup>

Bestalde, egun, krisiaren ondorioz, orduantxe sortu zen erregimen politikoa eztabaidan dagoenez, haren sorrerari buruz asko hitz egiten da. Trantsizioaren inguruan sorturiko mitoa modan dagoen hizketa gaia da. Fundazio-mito sortzaile hura sistema politiko berriaren sorrera puntua izan zen, eta hein handi batean, espainiar askoren identitate nazionala indartu egin zuen. Juan Andrade historialariaren arabera, ordura arte, Espainian ez zegoen hiritar guztiak bil zitzakeen harro egoteko moduko gertakizun nazionalik. Espainiar nazionalismoak, sarri goraiatu izan du errekontziliazio (berradiskidetze) eta

---

<sup>1</sup> Baieztapen hau, hala ere, tentuz hartu behar dugu. Izan ere, zenbait neoliberalentzat hartu izan diren neurriak ez dira “nahikoa” neoliberalak. Adibide modura, estatuaren parte hartzea ekonomian ez da nahikoa murriztu, betiere autore neoliberalen teorien iritzia jarraituz. Aldi berean, ezkerreko ekonomialariek gauza bera azpimarratu dute, liberalizazioak ez baitu derrigorrean “interbentzio eza” esan nahi. Kapitalak askatasun gehiagoz aritzeko aukera izan du, desarautzeari esker, baina sektore publikoak ekonomian parte hartzen jarraitu du, gehienetan kapitalaren alde. GONZÁLEZ CALVET, J. “Transformación del sector público e intervención en la economía.” IN: ETXEZARRETA, M. (Koord.) *La Reestructuración del Capitalismo Español, 1970-1990*. Madrid: Fuhem, 1991. Bartzelona: Icaria, 1991.

moderazioaren bidez Espainia Europako potentzien artean lehiakide izatera pasa zelako ideia.<sup>2</sup> Hala ere, batzuentzako demokrazia eredu adostu baten sorrera izan zena, beste askorentzako desengainu bat izan zen, orduan herriak aldarrikatzen zituen askatasunak motz geratu zirela uste baitute.

Krisia oso luzea eta sakona izan zen. Bere ezaugarri latzenetako bat langabezia tasa altua izan zen, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeko (ELGAKo, erdaraz OCDE) altuenetarikoa.

Garai honetan, alderdi politikoen ibilbideak gorabehera ugari eduki zituen. 1973an ETAK Carrero Blanco Gobernuko presidentea hiltzerakoan, eta diktadorearen osasun ahula ikusirik, Francoren oinordetza ezartzeko prozesua bizkortu zuen. Azkenik, Suárez eta Juan Carlos errege berriak zuzenduriko prozesu baten bidez erregimen politiko berri baterako bidea ireki zen.

Frankismoa babesten zuten indar gehienak Unión de Centro Democrático (UCD), Alianza Popular (AP) eta Fuerza Nuevaren (FN) artean barreiatu egin ziren. Horietan garrantzitsuenak Adolfo Suárezen UCD izan zen, frankismoko eta bestelako sektore moderatuetako kideak bildu zituen. Alderdi horrek 1977tik aurrera diktadura ondoko lehendabiziko gobernua kudeatzeko ardura hartu zuen. Neurri eta erabaki ausartak hartu behar izan zituen. Besteak beste aipatzekoak dira Moncloako Itun ospetsuak eta Fernández Ordóñezaren fisko erreforma, beherago arreta gehiagorekin ikusiko dugun bezala.

1982ko hauteskundeetan Alderdi Sozialistak (PSOE) irabazi zuen. Sozialistek, oposizio klandestinoan oso presente ez zeuden arren, beherago aztertuko ditugun zenbait arrazoiengatik, emaitza izugarriak lortu zituzten. Ibilbide politiko bitxia izan zuten sozialistek. Klandestinitatean alderdi marxista izatetik, gobernu-gidari zen bitartean politika neoliberalak abian jartzera pasa zen oso urte gutxitan. Felipe Gonzálezen gobernupean hartu ziren arestian aipaturiko konbergentzia hori gertatzeko beharrezkoak ziren neurri garrantzitsuenak: lanaren desarautzea (lanpostuak malgutuz eta prekarizatuz), industriaren birmoldaketa (lan-gatazkak sortu eta langabezia igoarazi zuena, baina aldi berean Europako

---

<sup>2</sup> ANDRADE BLANCO, J.A. “Otra Vuelta de Tuerca - Pablo Iglesias con Juan Andrade (programa completo)” On line elkarrizketa. *YouTube*, 2014ko abenduaren 21a. 2015eko otsailaren 20an kontsultatua. Loturarako ikus bibliografia.  
Juan Antonio Andrade historialariari eginiko elkarrizketa da. Bideoan Andradek “la panacea Europea” esamoldea erabiltzen du.

beste enpresekin lehiakorra zen industria indartsua sortuz) eta Espainiako sektore estrategikoetako zenbait enpresen pribatizazioa.

Ibilbide interesgarria izan zuen beste alderdietako bat, PCE (Partido Comunista de España) izan zen. Oposizio antifrankistako militante gehien zituen eta antolatuen eta mobilizazio sozial handiak egiteko gaitasuna zeukan alderdia zen. Baina urte gutxitan babes sozial izugarria galdu eta hauteskundeetan emaitza oso apalak lortu zituen, bidean leninismoa baztertu zuelarik.<sup>3</sup>

Ezin litezke garai honetan gertatu ziren aldaketa ekonomiko guztiak ulertu, gertaera politiko hauek guztiak sakonki aztertu gabe. Hori erakustea eta aztertzea litzateke lan honen helburu nagusia.

Esan bezala, aipatu dugun guztia oso egoera politiko ezegonkorrean gertatu zen. Herrialdearen gehiengoak aldaketa nahia zuen, baina haustura arriskutsurik gabekoa. Moderazioa izan zen orduko agente politiko eta ekonomikoen ezaugarri nagusia, aldi berean, aldaketa sakonak egin behar zirela jakinez. Beraz, orduko nahi sozialen ildo nagusiak bi hauek izan zirela esan dezakegu: aldaketa eta segurtasuna. Espainiar gizartea, garai hartan, bidegurutze historiko batean zegoelako jakitun zen.

## **2. Krisia eta beheraldiaren hasiera**

Normalean krisiaren jatorria 1973ko udazkenean Petrolio Esportatzaileen Elkarteak Yom Kipurreko gerraren harira presio modura eginiko prezioen igoera “politikoan” jartzen da. Baina arrazoi sinpleegia da krisi ekonomiko estruktural sakonari azalpena emateko. Gertakizun honek krisiaren “katalizatzaile” modura jokatu zuen, ezen krisiaren sustraiak Urrezko Aroaren garaiko hazkundera bilatu behar baititugu.<sup>4</sup> Dirudienez Espainiak 60ko hamarkadaren bukaeran dagoeneko eredu ekonomiko agortuaren zantzuak zituen.


Europar II. Mundu Gerra bukatu ondoren, hazkunde testuinguru batean murgildu ziren mendebalde kapitalistako herrialdeak. Espainian hazkunde hori 50ko hamarkadatik nabaritzen hasi zen, baina batez ere, 1959ko Doikuntza Plana (*Plan Nacional de Estabilización Económica de 1959*) eta gero. Mendebaldeko

---

<sup>3</sup> ANDRADE BLANCO, J.A. *El PCE y el PSOE en (la) transición*. Madril: Siglo XXI, 2012

<sup>4</sup> Angus Maddisonen erabilitako esamoldea da. MADDISON, A. *Las fases del desarrollo capitalista. Una historia económica capitalista*. Mexiko: FCE, 1986. eta MADDISON, A. *The World Economy in the 20<sup>th</sup> century*, Paris: OCDE, 1989.

Blokeko herrialde gehienetan Urrezko Aroa deitu izan zaio hazkunde garai horri. Espainian, *Desarrollismo*aren garaia deitu izan zaio, izan ere, Espainiako ekonomiak orduan aldaketa ekonomiko garrantzitsuak jasan zituen. 1950-73 bitartean Espainiako *per capita* BPGaren urteko hazkunde tasa %5,2 izan zen, Europako altuenetakoa.<sup>5</sup> Espainian baina, hazkunde hori oso oinarri ahulen gainean egin zen, bere garapena baldintzatzen zuen desoreka frankorekin. Hazkunde horren zenbait oinarrik, gerora, krisia larriagotu zuen.



**Iturria:** MALUQUER DE MOTES, J. *La economía española en perspectiva histórica*. Bartzelona: Pasado & Presente, 2014.614-617 orrialdeetako datuetatik egina.

Hazkunde garaiaren bultzadarako beharrezkoak ziren iturri energetikoen eta teknologia industrial berrien inportazioa. Horiek finantzatzeko eta kanpo defizita bete-ezina ez izateko, ezinbestekoak izan ziren, emigranteek bidalitako aurrezkiak (“remesa” ezagunak), Europatiko turismoak ekarritako dibisak eta kanpoko enpresen inbertsioa. Horrek kanpo dependentzia handia sortu zuen, bereziki Espainiako kontsumo energia beste herrialdeen batzuek baino gehiago hazi zela kontuan hartuz gero.<sup>6</sup> Baina hazkundera egon zen bitartean, aipatu dibisa iturriek kanpo oreka ahul bat mantentzen lagundu zuten. Gainera, horri guztiari, Espainiaren izaera periferikoa gehitu behar diogu, bestelako zailtasunak zekartzana.<sup>7</sup>

<sup>5</sup> CATALÁN, J. “Del “milagro” a la crisis la herencia económica del franquismo” IN: ETXEZARRETA, M. (koord.) *La Reestructuración ...* 97

<sup>6</sup> *Ibid.* 102-103

<sup>7</sup> *Ibid.* 105



Krisiaren lehen zantzuak 1974an ailegatu ziren Espainiara. Krisiaren kolpe latzak herrialdearen ekonomiaren zenbait aspektu agerian utzi zituen. Gainera, egin beharrekoak ziren erreformak atzeratu izanak egoera are gehiago kaltetu zuen. Frankismoko autoritateek ez zuten etorkizun ikuspeirik eduki eta ez zuten Espainiako ekonomiaren desoreka ekonomiko anitzak gainditzeko neurririk hartu. Neurri horiek hazkunde egoera baikor batean hartu ez izanak, etorkizunean egoera ezegonkor batean hartzea behartu zituen, neurri eta egoera askoz gogorragoak sortuz. Espainiaren desoreka produktiboa inportantea zen eta zurruntasun instituzionalak erabaki eta neurri politiko zein ekonomikoak hartzea zailtzen zuen. Sektore publikoak ez zuen neurriak hartzeko ahalmenik.

Krisiaren lehen zantzuak agertu zirenean, askok behin behineko arazo ekonomikoak besterik ez zirela izanen uste izan zuen, azaleko egonkortze neurri gutxi batzuek eta nazioarteko hazkunde batek konponduko luketena.<sup>8</sup> Aurreko garaiko akumulazio eskemara itzuli nahi izan zuten askok. Testuinguru honetan diskurtso politiko nagusia, gobernu frankistak UCDek zein PSOEek erabili zutena, oso mobilizatailea baina faltsua zen argudio teknokratikoa izan zen: herrialdearen arazo ekonomikoak adituen interbentziorekin aldatuko zirela.<sup>9</sup>

Baina, egoerak erreforma sakonak eskatzen zituen eta horrek frankismoaren oinarri ziren interes sare zaharraren zati baten eraispena esan nahi zuen. Egiturazko aldaketa sakon horiek egiteko indar politiko nagusien adostasun ahalik eta handiena behar zen.

Krisiaren lehendabiziko urteetan hartu ziren neurriak ez ziren oso eraginkorrak izan eta 1977 arte ez zen pausu koherenterik eman. Gainera, denbora luzean ez zen egon ibilbide argirik. Adibide modura, 1973 eta 1982 artean 10 ekonomia ministro egon ziren, bakoitzak besapean programa ezberdin bat zekarrena. Hala ere, guztien politika ekonomikoak antzeko norabidea izan zuen. González Calvet ekonomialariaren arabera, elite ekonomikoei (bereziki enpresari garrantzitsuenei eta bankariei) babesa eskaintzea eta ekonomiaren internazionalizazioa eta liberalizazioa izan ziren hasieratik gobernuaren proiektu


---

<sup>8</sup> ETXEZARRETA, M. “La Política económica del Proceso de Acumulación.” IN: ETXEZARRETA, M. (koord.) *La Reestructuración ...*33

<sup>9</sup> ANDRADE BLANCO, J.A. “Otra Vuelta de Tuerka...”

ekonomiko ezberdinen ardatza. Espainiaren arazo ekonomiokoen konponbidea, ildo horietatik etorriko zela onartu zen.<sup>10</sup>

Krisiak eztanda egin zuenean espainiar gizartea borborka ari zen. Hil-hurren zegoen erregimen diktatorialean lehendabiziko neurriak atzeratu eginen ziren, etorkizun ziurrago batean erantzun osatuago bat emateko. Gainera, arestian aipatu bezala, hasiera batean krisiaren lehen zantzuak agertu zirenean, askok behin-behineko arazo ekonomikoak besterik ez zirela izanen uste izan zuten, azaleko egonkortze neurri gutxi batzuekin eta nazioarteko ekonomiaren ustezko berreskurapen bultzada batez konponduko zena.<sup>11</sup>



**Iturria:** TAMAMES, R. *La Economía Española 1975-1995*. Madril: Ediciones Temas de Hoy, 1995. 546 orrialdeko datuetatik egina.

1974an, Espainiako ekonomia mantsotzen hasi zen eta 1975ean jaso zuen kolpea. Urte hartan BPGaren hazkundea gelditu egin zen eta ez zen hazi, kapitalisten inbertsioa jaitsi eta kanpo defizita izugarri hazi zen, BPGaren %3 baino gehiago. 1975 urtearen bukaeran 610.000 langabe zegoen (biztanleria aktiboaren %4,5), oraindik hurrengo urteetan lortuko ziren tasa altuenetatik oso urrun.<sup>12</sup> Izan ere, frankismoan zehar lan munduko legedia zurrunagoa zen eta

<sup>10</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. "Crisis, Transición y Estancamiento. La Política Económica Española, 1973-82." IN: ETXEZARRETA, M. (koord.) *La Reestructuración ...* 137-138

<sup>11</sup> ETXEZARRETA, M. "La política económica...". 33

<sup>12</sup> TAMAMES, R. *La Economía Española 1975-1995*. Madril: Ediciones Temas de Hoy, 1995. 96

langileak kaleratzeko oztopo legal ugari zegoen. Gainera, hazkunde garai bat zenez, Espainian langabe zeuden langile ugari emigratu egin zuen. Europarako emigrazio fluxu horrek langabeziaren ihes balbula modura jokatu zuen. Inflazioaren igoera ere larria izan zen.<sup>13</sup> 1976an inflazioa %22an kokatu zen. Herrialdearen kanpo zorra 12.000 milioi dolarrekoa izatera ailegatu zen, zeina urre eta dibisa erreserben bikoitza baino gehiago zen.<sup>14</sup>

Behin behinean hartu ziren lehendabiziko neurriak, 1976ra arte, politika ekonomiko “kompensatorioa” deiturikoa izan zen. Gobernuak bere gain hartu zuen energiaren prezioen igoeraren kostua, igoera hori merkatura pasarazi ordez. Horretarako petrolioaren gaineko zerga jaitsi, zenbait enpresa nazionalizatu eta diru-laguntzak eman zituen. Neurri horien finantziakzioa dibisen erreserbekin egin zen 1975 arte, eta 1976tik zorpetzearen bidez. Villar Mir ministroak urte horretan pezeta devaluatu egin zuen esportazioak errazteko asmoz. Bestalde, soldaten moderazioa planteatzen zuen inolako politikarik ezin izan zen planteatu, oraindik oso aktibo eta borrokalaria zen oposizio antifrankistaren presio sozialagatik.<sup>15</sup> Edonola ere, hasieran hartu ziren neurriak ez ziren egokiak izan, krisiaren izaera estrukturala eta sakontasun handia identifikatu ez izangatik. Gobernuak ez zuen egoki erantzuteko inolako baliabide edo tresnarik, ezta babes sozialik ere.

Lehendabiziko neurri ahul hauekin hasi zen Espainiako sistema ekonomikoaren eraldaketa sakona. Pixkanaka sektore publikoa zabaldu zen, paradoxikoki sistema keynestarra kolokan jartzen ari ziren garai berean. Modu honetara krisiaren aurrean erantzuteko ahalmen handiago izanzen zuen estatuak. Gainera, ongizate estatuaren lehendabiziko oinarriak ezarri ziren. Espainiako Ongizate Estatuaren sustraiak 1967an onartu zen Gizarte Segurantzaren Oinarrien Legean daude. Baina benetako Ongizate Estatuak 1973tik aurrera garatzen joan zen. Dirudienez, hasierako neurriak ez ziren kontzienteak izan, krisiaren presioaren eta epe motzeko neurrien ondorio baizik.<sup>16</sup> 1973tik 1977ra gastu publikoa BPGaren %23,3tik %27,6ra igo zen. Hazkunde horren zati handi bat langabezia aseguruaren orokortzearekin eta langabeziaren igoerarekin lotu behar dugu. Gastu horiei aurre egiteko soldaten gaineko zerga-kargak handitu ziren bereziki. Horrek

---

<sup>13</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. “Crisis, Transición...” 137-138

<sup>14</sup> TAMAMES, R. “*La Economía ...*” 98

<sup>15</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. “Crisis, Transición...” 139-140

<sup>16</sup> *Ibid.* 141

langileen erreakzioa handitu zuen enpresariei soldaten igoera eskatuz. Egoera politiko bereziaren ondorioz langileen borroka eraginkorra izan zen, eta soldatak igo ziren. Soldata-prezioak zurrumbilo gorakor batean sartu ziren. Enpresalgo eta langilegoaren artean lehia soziala piztu zen, krisiaren kostua bata besteari leporatzeko. Enpresariak kostuak merkatuko prezioetan islatzeko ohitura zuten eta beraz, hein batean, sektore publikoaren zabalkundeari (eta horrek eskatzen zuen soldaten gaineko presio fiskal handiagoari) leporatzen ahal zaio inflazioa.<sup>17</sup>

Azken Frankismoko neurriek egoera atzeratu eta okertu besterik ez zuten egin. Enpresa askok itxi egin behar izan zuten eta enpresariak “inbertsio greba” abiatu zuten.<sup>18</sup> Ondorioz, langabezia asko hazi zen eta desoreka ekonomiko handiak sortu ziren.<sup>19</sup>

Esan bezala, 1977ko hauteskundeetara arte ez zen moduzko neurri eraginkorrik hartzen hasi, hein handi batean gobernuak zuen enpresari zein langileen presioagatik. Hauteskundeak hurbildu ahala gobernuak, helburu elektoralarekin, neurri kaltegarriak hartzea saihestu zuen, iritzi publikoaren aurrean irudi txarrik ez emateko. Gainera, neurri kaltegarrienek gizartean ezegonkortasuna zabaltzen ahal zutenez, arriskutsuak kontsideratu ziren. Enpresarien onerako gizarte ordenaren *status quo*a mantentzea zen gobernuaren lehentasunetako bat eta neurri arriskutsu horiek atzeratuz gizartea alderantzika zezakeen gizarte haserre ez zen piztu nahi. Hala esplikatzen du González Calvetek: “...dado el estado de descomposición de la dictadura se prefirió sacrificar en el corto plazo los equilibrios macroeconómicos y el excedente de explotación a poner en peligro la continuidad de las relaciones de producción capitalista.”<sup>20</sup>

### 3. UCDren bi agintaldiak

1977ko hauteskundeak eta gero Espainiako historiaren tarte erabakigarrietako bat etorri zen, zetorren eredu berriaren oinarriak jarri baitziren eta lehendabiziko neurri estrukturalak hartu baitzituzten. Suárezek

---

<sup>17</sup> *Ibid.*.141-143

<sup>18</sup> Presio modu hau, kapitalaren iritzia ezagutzeko modu oso egokia da. Gobernuaren erabaki politikoek kapitalaren interesak kaltetzen dituztenean edota egoera ekonomikoagatik etekina lortzea zaila zaienean enpresariak inbertsioak egiteari uzten diote presio politikoa egiteko asmoz.

<sup>19</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. “Crisis, Transición...” 143-144

<sup>20</sup> *Ibid.* 141

irabazitako hauteskunde historikoek gobernuari legitimitate soziala eman zioten politika ekonomikoan ausart aritzeko “baimena” emanaz.

UCDren gobernuetan zehar bi jokaera nagusi ezberdinu daitezke. Lehendabizikoak bere lehen agintaldia hartuko luke gutxi gorabehera. Agintaldi honetan, gobernuaren helburua nagusia, Espainian erregimen berria sendotzea izan zen. Horretarako, gobernuak ezkerreko oposizioa erregimen berriaren sisteman integratu zuen. Garai honetako mugari izan ziren gertakari nagusiak Moncloako Itunak (1977ko urrian) eta Konstituzioa (1978ko abenduan) izan ziren.

Bigarren agintaldian, aldiz, indar korrelazioa aldatu egin zen. Enpresariak presio ekonomikoa egiteko bideak eta haien elkarteak eratu eta indartu egin zituzten. Joera aldaketa hau, lehenagotik nabaritzen hasi zen (gobernuaren baitan 1978ko otsailean egon zen krisi politikotik). Behin konstituzio berria onarturik, hauteskundeak deitu, irabazi eta enpresarien aldekoago zen politika ekonomikoak bultzatu zituen gobernuak.

### -3.1. Legealdi Konstituziogilearen politika ekonomikoa

Agintaldi honen helburu nagusia erregimena sendotzea izan zen. Horretarako, erregimen berriak egonkortasun ekonomikoa beharrezkoa zuen. 1977ko ekaineko hauteskundeetatik ateratako UCDren gobernu ezinean zebilenez, kontsentsu soziala bilatzen saiatu zen eta modu oso arrakastatsuan lortu ere, epe laburrean egoera ekonomikoa oso azkar okertu zen arren. Oso trebe aritu zen presidentea orduan.

Ordura arte, oposizioko alderdiek, gobernuarekiko jarrera lehiakorra eduki zuten. Baina hauteskundeak egin baino zenbait hilabete lehenago ondorio argi bat atera zuten: frankismoaren jarraipena eteteko indarra bazuten, baina ez zuten nahikoa ahalmen nahi eta espero zuten “apurketa” bultzatzeko, elite zaharrak aldaketa erradikalaren alde edozein zantzu indarrez oztopatzeko prest baitzeuden. Azkenean, oposizioak, gizartearen gehiengoak bezalaxe, moderazioaren alde egitea erabaki zuen. Momentu horretan kokatu behar da Suárez presidentearen jokaldi bikainetako bat. Andradek esan bezala, oposizioa hain erasokor ez izateko, Suárezek ezkerreko alderdiak bere plan erreformistan

integratu zituen. Historialariaren hitzetan, presidenteak “integrazio bidezko neutralizazioa” erabili zuen.<sup>21</sup>

Behin jokaldi erreformistan sarturik, esplizituki zein inplizituki oposizioko indarrek (muturreko ezker zein eskuineko alderdiek salbu) Europa mendebaldean nagusi zen sistema kapitalista “soziala” onartu zuten, produkzio bideen eta jabetzaren egoeraren aldaketa sakona eskatu gabe eta haustura politikoa baztertuz.<sup>22</sup> Biek, gobernuak zein ezkerreko oposizioko alderdi nagusiek, krisiaren kostuaren banaketa egin behar zelako ideian bat egin zuten, hala ere, kostu horren banaketa nola egingen zen adostu beharra zegoen. Negoziazio horietatik Moncloako Paktuak sortu ziren, 1977ko urriaren 25an sinatu zirenak. Moncloan, krisiari aurre egiteko lehendabiziko neurri koherenteak adostu ziren.

Ituna sinatzerakoan ekonomiaren egoera larria zen. Hasteko, krisi garaiko inflazio tasa maximoa (%30) momentu hartan eman zen. Bestalde, 900.000 pertsona langabezian zeuden (biztanleria aktiboaren %6,6), horietatik 300.000 inguru langabezia-asegururik gabekoak ziren. Kanpo zorra 14.000 milioi dolarrekoa zen (1,2 bilioi pezeta), Espainiako bankuaren urre eta dibisa erreserben hirukoitza. Gainera, enpresen arteko barne zorra ere oso handia zen, finantza sistemaren arriskuan jartzen zuena.<sup>23</sup>

Bereziki garrantzitsua izan zen itun hau, ezen Espainiako kapitalismo berriaren ataria kontsideratzen baita, inflexio puntu bat izan zen eta. Momentu horretan hasi zen itxura hartzen demokrazia kapitalista moderatu berriaren markoa. Bereziki hiru ezaugarri nagusi zituen marko honek: jarraikortasuna, barne kontsentsua eta onarpena. Lehenik, jarraikortasuna, merkatu ekonomia ez baitzen sekula dudan jarri. Frankismoko ekonomiaren funtsa sakonki aldatzen bazuen ere, ordena soziala ez zen inondik inora kolokan jartzen. Bigarrenik, barne kontsentsua edukitzea ere garrantzitsua izan zen. Ezkerrak zein eskuinak parte hartu zuten paktu honetan, eskuinak ezkerrearen aldarrikapenak epeltzea lortzen zuelakoz eta ezkerrek erregimen berrian espazio bat nahi zuelakoz. Eta azkenik, biek, eskuinak zein ezkerrek, zalantzarik erakutsi gabe Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF, gazteleraz FMI) zein ELGaren aginduak bete eta onartu egin zituzten.<sup>24</sup> Itunaren

---

<sup>21</sup> ANDRADE BLANCO, J.M. “Otra Vuelta de Tuerka ...”

<sup>22</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. “Crisis, Transición...”135-136

<sup>23</sup> TAMAMES, R. “La Economía ...” 142

<sup>24</sup> ETXEZARRETA, M. “La política económica...” 38-39

ondorioz eskuin eta ezkerren arteko gatazka behin-behinean eten zen, atseden eta bake une labur bat irekiz, konstituzioa eratzeko abagunea sortuz.<sup>25</sup>

Paktu horietatik ateratako politika ekonomikoak hiru ardatz nagusi zituen: ekonomia egonkortzea, errenta politika eta erreforma estrukturalak. Hirurek elkar eragin handia eta elkarren arteko beharra zuten. Espainiako ekonomia egonkortzea zen lehentasunetako bat, bereziki kanpo defizita etetea eta inflazioa murriztea. Inflazioa murrizteko errenta politika eraginkorra behar zen. Hortaz, inflazioaren mantsotzea soldaten moderazioarekin etetea erabaki zen. Ezkerreko alderdi eta sindikatuek sakrifizio hori demokrazia lortzearen truke onartu zuten. PCEk CCOOren mobilizazioei eusteko konpromisoa hartu zuen, itunetan zenbait aspektu aurrerakoi onartzearen truke.<sup>26</sup> Haien diskurtsoa epeldu egin zen eta krisiaren aurrean “elkartasuna” behar zela aldarrikatzen zuten. Horrek sistema kapitalista-burgesean jokatu eta harekin konplizitatea edukitzea suposatzen zuen.

Aipatu neurriak osatzeko, beharrezkoak ziren egiturazko bestelako erreformak: erreforma fiskala eta ongizate estatua. Biek sektore publiko indartsu eta zabala eskatzen zuten, eta horrek berak ere erreforma sakona esan nahi zuen.<sup>27</sup> 1978an konstituzioa onartu zenerako kanpo defizitaren desoreka zuzentzen hasia zen, baina bestelako erreforma batzuk ezin izan ziren aplikatu. Halaxe azaltzen du González Calvetek:

A finales de 1978, cuando se aprueba la constitución, se han corregido algunos desequilibrios macroeconómicos [...] aunque no se han realizado ajustes ni reformas estructurales de importancia [...] debido a la escasa presión de la izquierda y la fuerte resistencia del capital.<sup>28</sup>

Kapitalaren erresistentzia handia gertatu zen agintaldi honetan eta enpresarien sektore bat Moncloan adostutakoaren aurka azaldu zen.<sup>29</sup> Egiten ari ziren aldaketa ekonomikoei buruzko enpresari, elite eta oligarkia handien iritzia jakiteko inbertsioaren gora-beherei erreparatzen ahal diegu, horretarako adierazle esanahitsua baita. González Calvetek emandako datuen arabera, 1977an eta 1978an %4 eta %6,4 jaitsi zen hurrenez hurren.<sup>30</sup> Horrek, krisi ekonomikoagatik

---

<sup>25</sup> TAMAMES, R. “*La Economía ...*” 162

<sup>26</sup> ANDRADE BLANCO, J.A. *El PCE...* 80

<sup>27</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. “Crisis, Transición...” 147- 150


<sup>28</sup> *Ibid.* 152

<sup>29</sup> TAMAMES, R. “*La Economía ...*” 163-164

<sup>30</sup> Dirudienez 1977an inbertsioa %3,5 erori zen, baina 1970ko pezeta konstateetan kalkulaturaz gero

mozkina ateratzeko zailtasunez gain, kapital handiaren erreformen aurkako erresistentzia handia izan zela adierazten digu.

Inbertsio greba honekin Espainiako bertako kapital nazionalak bere desadostasuna adierazi zuen. Atzerri inbertsioa, aldiz, 1977tik Espainiako merkatuetan zuen kokapena handitzen joan zen. Paktuak betetzen zirela ziurtatzeko ez zen bestelako organorik ezarri. Akats honek gero ezkerrari kalte egin zion, gobernuak ez baitzuen emandako hitza bete.<sup>31</sup>



**Iturria:** TAMAMES, R. *La Economía Española 1975-1995*. Madrid: Ediciones Temas de Hoy, 1995. 582 orrialdeko datuetatik egina.

### -3.2. Oreaka Aldaketa

Behin konstituzio berria onartuta 1979ko martxoa hauteskundeak egon ziren eta Suárezek berriro irabazi zuen. Ordurako egoera okertu egin zen. 1979-80an Iran eta Iraken arteko gerraren hasierak petrolioaren prezioaren beste igoera indartsu berri bat ekarri zuen, mendebaldeko herrialdeetan BPGa %2 eta 3 artean jaistea eragin zuena.<sup>32</sup> Hala, Espainiako ekonomia 1979 eta 1980 artean beheraldian murgildu zen. Moncloako Itunetan adostutako neurriek eta Fuentes Quintana ministroak hartutako erabakiek ekarritako suspertze zantzuak desagertu ziren.

(ez dezagun ahaztu inflazioak zuen eragina) %4 izan zen. 1978an, aldiz, %5,4 erori zen, %6,4 1970ko pezeta konstanteetan. GONZÁLEZ CALVET, J. "Crisis, Transición..." 147, 151.

<sup>31</sup> TAMAMES, R. "La Economía ..." 141

<sup>32</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. "Crisis, Transición..." 153



Ondorioz, enpresen porrot segida bat abiatu zen. Lehendabizi sektore industrialean, gero finantzetakoan eta handik besteetara. Langabezia azkar igo zen. Hauxe, arazo berria eta ia ezezaguna zen espainiarrentzako, frankismoak iraun zuen bitartean langabezia tasak ia beti baxu mantendu baitziren, arestian aipatu dugun bezalaxe frankismo garaiko lan legediak langileak kaleratzea zailtzen zuelakoz. Krisiak hori guztia aldatu zuen, lan legedia aldatu baitzen eta atzerrian lanpostua eskuratzeko aukera ere desagertu egin baitzen. Lan legedia garaiz ez aldatzeak egoera asko okertu zuen.

Ordurako, dagoeneko indar politikoen arteko hitzarmen soziala desegin zen eta kapitalak presio egiteko ahalmen gehiago zuen. Joera hau lehenagotik zetorren. UCDren lehendabiziko agintaldian kapitalak, desinbertsioen bidez, gobernuak eta ezkerak adostutako erreforma saiakeren aurkako protesta egin zuen.

Bai kapital handia bai eskuin kontserbadoreena Moncloako Itunetan sinatutakoa aurrera eramanez gero, euren pribilegioak kalteturik suerta zitezkeela konturatu ziren. Dirudienez, alderdiaren barrenetik zein patronalaren sektore atzerakoienetatik ez zituzten begi onez ikusi eta Suárezen lehendabiziko gobernuko politika ekonomikoaren ardatz ziren pertsona garrantzitsuenak -aldi berean, elementu progresistenak zirenak- erorarazi egin zituzten.<sup>33</sup> Moncloako Itunak sinatu eta lau hilabetera krisi bat piztu zen gobernuaren barnean: Enrique Fuentes Quintana ministroak, eta haren atzetik beste zenbait karguk, presio ekonomiko eta politikoengatik dimititu egin zuten.<sup>34</sup>

UCDren hegal eskuindarrenak gobernuaren kontrola berreskuratu zuen, kapitalaren presioei kasu eginez.<sup>35</sup> Gobernuan eta ministerioetan Suárezek enpresarien gustukoagokoak ziren kide berriak sartu zituen. Bai PSOEk bai PCEk UCDren gobernuak eskuinera eginiko biraketa ideologikoa kritikatu zuten eta

---

<sup>33</sup> IZQUIERDO, J.M. *El País*. 2014ko abuztuaren 29an. (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua) (1978ko urriaren 25eko editorialaren zati bat azaltzen da). Loturarako ikus bibliografia.

*El País*. 1978ko otsailaren 25a. (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua). Loturarako ikus bibliografia.

<sup>34</sup> *El País*. 1978ko otsailaren 25a. (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua). Loturarako ikus bibliografia.

TAMAMES, R. "La Economía ..." 169-170

<sup>35</sup> IZQUIERDO, J.M. *El País*. 2014ko abuztuaren 29an. (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua). Loturarako ikus bibliografia.

itunetan adostutakoa arriskuan zegoela ikusi zuten.<sup>36</sup> Santiago Carrillok, Alderdi Komunistako liderrak, adibidez hauxe esan zuen: “Una vez más hay que decir que en este Gobierno están representados los empresarios, pero no los trabajadores”.<sup>37</sup> Biraketa ideologikoaren adibide modura, Energia eta Industria ministro berria, Agustín Rodríguez Sahagún, CEPYME eta CEOEko kide garrantzitsuenetako bat zen.<sup>38</sup>

Gobernuaren birformulazio ideologikoa gertatu eta oso gutxira Konstituzioa onartu zen eta, prozedurak agintzen zuen bezalaxe, hauteskundeak aurreratu egin zituen gobernuak, 1979ko martxoan egingo zirenak.

### -3.3. UCDren bigarren agintaldiko neurri ekonomikoak

UCDk hauteskundeak berriro irabazi zituen arren, Suárezen alderdiak babes elektoralera galdu eta ahalmen politiko gutxiago eskuratu zuen, ez baitzuen gehiengo absolutua eskuratu. Kapitalaren presioaz UCDren gobernuak ez zuen erreforma fiskal aurrerakoirik garatu eta politika berriek soberakinaren berreskurapena izanzen zuten helburu, malgutasun, lehiakortasun eta merkatuaren aitzakiak erabiliz. Hala, 1979an Programa Económico a Medio Plazo zeritzona onartu eta aplikatu zuen, ia ELGAko erakundeek gomendaturiko neurrien kopia hutsa zena. Helburu teorikoa langabezia jaistea zen. Hiru ardatz nagusi zituen: 1) neurri makroekonomikoak (politika fiskala eta soldaten murrizketa), 2) doitze estrukturala (alferrikakoa suertatuko zen plan nuklearra eta ekoizpenean eragiteko lehendabiziko birmoldaketa neurriak) eta 3) erreforma estrukturalak (lan merkatuaren desarautzea, finantza sistemaren liberalizazioa eta sektore publikoan zenbait aldaketa).<sup>39</sup>

Teorian plan ekonomikoaren helburu nagusia langabezia jaistea zen. Horretarako enpresarien akumulazio ahalmena berrindartu behar zen eta inbertsioa berrabiaraz zedin. Hartutako neurriak honakoak izan ziren: inflazioa gelditzea (hasiera batean langabeziaren igoera zekarkeen arren), soldatak (kostu

---

<sup>36</sup> DE LA CALLE, A.L. *El País*. 1978ko otsailaren 28a. (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua) Loturarako ikus bibliografia.

<sup>37</sup> VAQUERO, J.M. *El País*. 1978ko otsailaren 28. (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua). Loturarako ikus bibliografia.

<sup>38</sup> *El País*. 1978ko otsailaren 25a. (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua). Loturarako ikus bibliografia.

<sup>39</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. “Crisis, Transición...” 155

bezala interpretatuta) jaistea eta lan merkatuaren malgutasuna handitzea. Teorian langileen egoera hobetzeko argudiopean, langileen egoera kaltetzen zuten neurriak hartu ziren.<sup>40</sup>

Orduko gobernuaren neurriek izaera klasista zuten, adibidez politika fiskala. Soldaten gaineko presio fiskala handitu egin zen eta enpresen gainekoa, ordea, arindu, teorian inbertsioa bultzatzeko aitzakiarekin.<sup>41</sup> Langile eta talde apalei kalte egin zien horrek. Enpresariei, aldiz, diru-laguntzak eman zitzaizkien eta inbertsioagatik, zor publikoa erosteagatik zein eraikinak erosteagatik desgrabazioak ezarri zitzaizkien. Iruzur fiskala ekiditeko apustu politiko handirik ez zen hartu, iruzurgile handien onerako.

Bestalde, soldaten neurritasun eta murrizketa planteatzen zuen errenta politika egin zen, inflazioa eteteko neurria zelako argudioa erabiliz. Baina funtsean krisiaren kostua langileen gain botatzeko mekanismo bat bezala interpretatu da. Egoeraren aurrean nahitaez hartu beharreko neurria zela esan zuen gobernuak. 1981ko otsailaren 23ko estatu kolpea eta gero, joera hori berrindartu zen.<sup>42</sup>

Enpresek, zituzten zailtasunen aurrean efizientzia lortzeko teknika eta espezializazioan inbertsioak egin beharrean, oso babesturik dauden merkatuetan lehiazera ohiturik zeudenez, irabaziak mantentzen saiatu ziren. Horrela, langileak kaleratu eta zenbait arrazionalizazio neurri hartu zituzten. Bestalde, gobernuak krisian zeuden hainbat sektorerengan “birmoldaketa” ahul eta koordinatu gabea abiatu zuen, ez zena eraginkorra izan. Funtsean presio ahalmena zuten enpresen sektoreen nazionalizazioan eta zenbait adabaki jartzean oinarritu zen. Modu hartara, sektore publikoak zuen pisua handitu zen, ez politika kontziente baten ondorioz, baizik eta hartutako neurrien albo-ondorio modura.<sup>43</sup>

Epealdi hartan Mendebaldeko Europa guztian zehar zebiltzan korrante liberalizatzaileek inspiratuko dituzte gobernuaren politika ekonomikoa eta erreformak. Ezin ditugu ahaztu 1979 eta 1990 artean Erresuma Batuko gobernuan egon zen Margaret Thatcherrek bultzatutako politika ekonomikoak; *tatcherismo*-aren eta *reaganomics*-en garaia zen.

---

<sup>40</sup> *Idem.*

<sup>41</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. “Crisis, Transición...” 156-157

<sup>42</sup> *Idem.*

<sup>43</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. “Crisis, Transición...” 159-162

Hartara langabeziaren kontzepzio berri bat jarri zen modan. Ordura arte, azalpen neokeynestarraren arabera, langabezia eskaera faltaren ondorio kontsideratzen zen. Langabeziaren arazoa konpontzeko, beraz, gobernuak eskari erantsia sortu behar zuen, zuzenean zein zeharka. Baina egoera, berri hartan zorrak eta defizit publikoak ez zuten hori ahalbidetzen. Teoria neoliberalak, aldiz, langabezia kostu altuengatik kontratazio urriaren ondorioz gertatzen zela esaten zuen (du). Argudiatzen zutenaren arabera, soldata baxuek irabaziak igotzen lagunduko zuten eta orduan kontratazioa handituko zen, enplegu beterezko bidea eginez. Horrela, pentsaera horri jarraiki, “kostuak jaisteko” aitzakiarekin eta nazio elkartasunaren printzipiopean, soldatak jaitsi ziren, eta “lan-merkatua” malgutzeko, hura prekarizatu egin zen. Esan izan da arrazoiketa neoliberal honek ez diola langabeziari konponbide osoa ematen, irabazien igoera gertatzen denean ez baitu beti esan nahi inbertsioa eta kontratazioa igoko direnik.

Legedi berri hau sindikatu zein enpresarien kolaborazioaz hartu zen. Kontuan hartu behar dugu UGTk eta CEOEk 1980 eta 1981erako AMIa (Acuerdo Marco Interconfederal) sinatu zutela.<sup>44</sup> Langileen egoera kaltetzen bazuen ere, eskubide eta askatasun sindikalak (sindikatuaren aldarrikapen historikoak zirenak) finkatzen zituenez, sindikatuak erreforma onartu zuten, negoziaketarako ahalmen handia galdu zuten arren.<sup>45</sup> Pixkanaka kontzertazio sozialaren oinarriak jarri ziren.

González Calvetek esandakoaren arabera langileen aurkako erasoak bi zentzutan joan ziren: epe motzean, soldaten eustearekin (“contención salarial”) eta epe luzean lan munduko erlazio markoa berria eratzen hasteko lehen neurriekin.<sup>46</sup>

### -3.4. UCDren agintaldien ondorio ekonomikoak

1982ra arte hartu egin ziren neurriak epe motzekoak, eta koordinatu gabeak izan ziren. Ondorio nagusienak etorkizunean jarraituko zen modelo sozioekonomikoa ezartzea eta erregimen berria indartzea izan ziren.<sup>47</sup>

Epealdi honetan sektore publikoaren pisua handitu egin zen, gastu publikoa handituz. Horretarako arrazoi ugari egon ziren. Batetik estatuak

---


<sup>44</sup> *El País*. 1980ko urtarrilaren 6an. (2015eko ekainaren 17an kontsultatua). Loturarako ikus bibliografia.

<sup>45</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. “Crisis, Transición...” 164-165

<sup>46</sup> *Ibid.* 153 eta 155

<sup>47</sup> *Ibid.* 169-173

ekonomian eragin gehiago izateko neurriak hartu zituen, modu honetara krisiaren aurrean erantzuteko ahalmen handiago izanen baitzuen. Bestalde, langabezia bezalako gizarte asistentzia neurriak handitu ziren. Gainbeheran zeuden enpresen nazionalizazioak eta emandako subentzioek ere garrantzia izan zuten estatuaren gastua handitzerako orduan. Gobernuak hainbat diru-laguntza eman zizkien krisiak kaltetutako enpresa zein langileei. Hauek helburu konkretuak zituzten: gatazka soziala ekiditea kasu batzuetan eta enpresarien boikota etetea besteetan. Honengatik guztiagatik gastu publikoa BPGaren 7 puntutan handitu zen eta estatuaren defizita handitu zen BPGaren %5,6 izan arte.



**Iturria:** Iturria: MALUQUER DE MOTES, J. *La economía española en perspectiva histórica*. Bartzelona: Pasado & Presente, 2014. 614-617 orrialdeetako datuetatik egina

Espainia nazioarteko lanaren banaketan kokapen berria hartu zuen. Estatu Batuetako, Japoniako eta Europako zentro ekonomikoen atzetik kokaturik zegoen bigarren mailako kapitalismo modura kokatu zen, maila ertaineko produktuen ekoizpenean oinarritutako ekonomia zuena.<sup>48</sup> Garai honetan helburu ekonomiko berria ezarri zen: Europako Ekonomia Erkidegoan (EEE, gaztelarazko Comunidad Económica Europea CEE) integratzea. 1979an egin zen sarrera eskaera formala.

<sup>48</sup> *Ibid.* 171

Beraz, ikusi dugunaren arabera Suárezen bi gobernu demokratikoen artean bi politika ekonomiko diferente egin ziren. Lehendabizikoan, hitzarmen sozialaren bidez ezkerreko oposizioak erreformaren alde egin zezan gobernuak beregana ekarri zuen, sindikatu eta ezkerreko alderdiekin adostutako akordioak bilatuz. Krisiaren kostu soziala banatzeko akordioa erabaki zen, Moncloako Itunetan islaturik. Bigarrenean, aldiz, askoz ere argiago, enpresarien alde egin zuen.

Dirudienez norabide aldaketa hau langileen eta enpresen antolakundeen - eta beraz presio ahalmenaren- egiturekin egon zen loturik. Langileen sindikatuak aspalditik frankismoaren aurka borrokan trebaturik zebiltzan eta erregimenak irekiera abiatu zuenean ongi antolaturik eta legitimaturik zeuden, klandestinitatetik antzeztoki publikora pasteko. Enpresariak, frankismoan zehar, gobernuaren babes esplizitua zuten ez zuten haien interesen defentsarako inolako elkarte eraginkorrik. Erregimen berria jaiotzen ari zela, lehendabiziko hilabeteak euren antolakunde propioak eratzen eman zituzten eta ondorioz, euren presio ahalmena zertxobait beranduago indartu egin zen. Espainiako Enpresari Elkartearen Konfederazioa (CEOE) 1977ko ekainean eratu zen eta Enpresa Txiki eta Ertainaren Konfederazioa (CEPYME) urte bereko irailean.<sup>49</sup>

#### **4. PSOEren Gobernua**

Otsaileko 23aren estatu kolpea eta gero, gobernuko alderdia oso kalteturik atera zen. UCDren barnean tentsio handia zegoen eta gobernua ezinean zebilen. Krisiak okerrera egin zuen. Horregatik Leopoldo Calvo-Sotelo presidenteak hauteskundeak aurreratu ziren.

1982ko urriaren 28an hauteskundeak egin ziren eta PSOEak abantaila handiz, gehiengo absolutua lortu zuen. Bere programan gizarte justu eta solidarioagoa prometatzen zuen. Espainiaren modernizazioa eta demokratizazioa izan ziren kanpainan zehar azpimarratutako kontzeptu nagusiak. Espainiako ekonomiaren efizientzia handitu nahi zen. Programan zetorrena, neurri sozialdemokrata tradizionalak ziren, keynesianismoan oinarritutakoak. Politika

---

<sup>49</sup> Enpresarien Elkartearen Espainiako Konfederazioaren (CEOEren) Webgunea. (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua). Loturarako ikus bibliografia.  
Espainiako Enpresa Txiki eta Ertainaren Konfederazioaren (CEPYMEren) Webgunea. (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua). Loturarako ikus bibliografia.

espantsionisten bidez, 800.000 lanpostu sortuko zituela zioen eta Espainia NATOtik aterako zuela hitz eman zuen.<sup>50</sup> Haren hautagaiak, Felipe Gonzálezek, karisma handia zuen. PSOEek, hamar milioi boto eta 202 eserleku eskuratu zituen, erreformak egiteko legitimazioa ematen zion gehiengo absolutu zabala.

Hauteskundeak baino lehenago patronalaren zenbait sektorek Alderdi Sozialistak irabaziz gero “produkzio bideen sozializazioa” eta “ekonomiaren boltxebizazioa” gerta zitekeela ohartarazi zuen, euren desadostasuna azaleraziz.<sup>51</sup>

Baina iragarpen apokaliptikoak ez ziren bete. Gobernura ailegatu bezain pronto gobernuak oztopo ugari aurkitu zuen, bere norabidea aldatzera behartu zutenak. Batetik, erregimen berria oraindik egonkortze fase batean zegoela kontuan hartu behar dugu. Botere faktiko tradizionalak (banka, armada eta bertako zein atzerriko kapitala) oraindik oso indartsuak ziren eta haien interesen aurkako edozein neurrik ezin zuen aurrera egin. Berriz ere, krisiaren aurrean langileei “elkartasuna” eskatu zitzaien. Gainera, egoera ekonomiko larriarengatik (atzerriarekiko dependentzia, inflazioa, geldialdi ekonomikoa, kanpo defizita, defizit publikoa, ..) gobernuak ez zuen ekonomikoki eragiteko ahalmen handirik. Garai berean, Frantzian François Mitterrand presidentearen gobernuan Alderdi Komunistaren (PCF) eta Alderdi Sozialistaren (PS) arteko “Programa Komunak” proposatutako neurri ekonomiko aurrerakoiek huts egin zuten. Pirinioez bestalde, presio modura egindako kapital handiaren desinbertsio estrategia bat izan zen, eta ondorioz, horixe ere Espainian gerta zitekeelako susmoa zegoen. Hori gutxi balitz, gobernu bi presioren artean zegoen, langile eta enpresarien artean, bakoitzak krisiaren kostua besteari bota ziezaion eskatzen ziolarik. Horri guztiari nazioarteko presioa gehitu behar zaio (Reaganek eta NATOk kideek egiten zutena), baina auzi hori berehala argitu egin zen.<sup>52</sup>

Oztopo horiekin guztiekin eta kapital handiaren presioarekin, hauteskundeak irabazi eta berehala gobernuaren izaera aldatu egin zen. Izaera

---

<sup>50</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. “Liberalización como estrategia socialdemócrata”. In: *Mientras tanto*, 38 zbk., Bartzelona: Icaria, 1989ko udaberria, 24-25.

*Mientras Tanto* aldizkaria ezkerreko aldizkari politiko-kulturala da. Garaiko PSOEren gobernuarekin kritikoa zen. Aldizkariaren loturarako ikus bibliografia.

<sup>51</sup> *Ibid.* 25

<sup>52</sup> *Ibid.* 26

SEGURA, J. “Del primer Gobierno socialista a la integración en la CEE: 1983-1985” IN: GARCÍA DELGADO, J.L.(zuz.). *Economía Española de la Trascición y la Democracia*. Madril: CIS, 1990. 60

teknokratikoko gobernu bat jarri, tesi sozialdemokratak baztertu eta liberalismoaren joera hartu zuen. Hala ere, gobernuko zenbait kide lehenagotik ere liberalak ziren: Miguel Boyer eta Carlos Solchaga, Ekonomia eta Industria ministro izan ziren, politika ekonomikoan garrantzi handia zutenak.<sup>53</sup>

González Calveten arabera, alderdi sozialdemokrata batek politika neoliberalak egitea ez zuen kontraesankorra izan behar. Sozialdemokraziak ez ditu sistema kapitalistaren oinarriak aldatzea bilatzen, baizik eta kapitalismoaren alderdi negatiboak leuntzea, hau da, estatuaren tresna ekonomikoen bidez horiek zuzentzea. Estatuak, etekinen birbanaketa tresnak erabiltzen ditu eta enpresen aktibitateak gizartearengan edo ingurugiroarengan dituen kalteei murrizketak jartzeaz arduratzen da. Aldi berean estatuak eskari maila altua mantentzen laguntzen du, aktibitate ekonomikoa mugiaraziz eta langabezia murriztuz. Funtsean, sozialdemokraziaren estrategia, kapitalismoaren dinamismoa bermatzea da, honek dituen alderdi negatibo eta ezberdintasunak zuzenduz. Baina estrategia sozialdemokrata honek hutsune bat du. Sistemaren giltza edo gakoetako bat inbertsioa da eta hauxe ez dago estatuaren kontrolpean, inbertsioaren lau bosten esku pribatuen ekimenekoa baitira.<sup>54</sup>

PSOEren estrategia berriak, ideia horri jarraiki inbertsioa berpiztea helburu zuen. Horretarako enpresarien mozkina berreskuratzeko egokiak ziren baldintzak berregin behar ziren, inbertsioa berpiztuz enplegua hazi eta hazkundera abiatzeko.<sup>55</sup>

Oztopo nagusiak, merkatuen zurruntasunean, protekzionismoan, sektore batzuen gaindimensionamendu ezegokian, teknologia zaharkituan eta efizientzia ezan zeuden. Enpresari eta bankariak (ordura arte interbentzionismo frankistaz onura atera zutenak) merkatuaren eta liberalizazioaren alde azaldu ziren, eta ezkerren gobernu baten mesfidati agertzetik PSOEren neurri ekonomikoak txalotzera pasa ziren. EEEak eta atzerriko enpresek ere antzeko interesa azaldu zuten. Sindikatuek, aldiz, ez zuten argi, baina batzuek demokraziaren onerako sakrifizio txiki bat egiteak merezi zuela ondorioztatu zuten.<sup>56</sup>

---

<sup>53</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. “Liberalización como...”.26

<sup>54</sup> *Ibid.* 27

<sup>55</sup> *Ibid.* 27

<sup>56</sup> *Ibid.* 27-28



PSOEk estrategia berria gogo biziz hartu zuen eta egingarria zen politika ekonomiko bakarra zela argudiatu zuen. González Calvetek esaldi batean laburtzen du estrategia honen helburua: “sanear y liberalizar para crecer, crecer para redistribuir.”<sup>57</sup> Hala ere, liberalizazioa helburu konkretu bat erdiesteko tresna modura ulertzen hasi zen arren, berehala, liberalizazioa bera politika ekonomikoaren helburu bihurtu zen. Ekonomiaren onbideratze edo saneatzea lehentasun izatera pasa zen.<sup>58</sup>

PSOEn gobernuauren neurriak bi mailatan egin ziren: koiuntura mailakoak (epe motzera begira) eta maila estrukturalean (epe ertain-luzera). Koiunturazko neurriei dagokienean, doitze makroekonomikoa (errenta politika, politika fiskala eta diru-politika murriztailea) eta ekoizpenaren doitzea (birmoldaketa sektore industrialean) azpimarratu behar ditugu. Neurri estrukturaleari dagokienean, joko kapitalistaren arau berriak ezartzean zeutzan. Bost arlo nagusi bildu zituzten: sektore publikoa, lan merkatua, finantza sistema, atzerri sektorea eta ekoizpen egitura.<sup>59</sup>

#### -4.1. Doitze makroekonomikoa

Maila makroekonomikoko neurriei zegokienean, helburu nagusia inflazioa gelditzea izan zen. 1983 eta 1984 artean gobernuak egonkortze plan txiki bat burutu zuen: pezeta devaluatu zen, diru-politika murriztailea bultzatu zen, soldatak murriztu ziren eta politika fiskal ortodoxoa bultzatu zen. Neurri hauek langabezia hazarazi zuten.

Soldaten hazkundea murrizten zuen errenta politika (sindikatu, enpresari eta gobernuaren arteko itun sozialari esker) Moncloako Itunetik indarrean egon zen joera izan zen. PSOE gobernura ailegatzekoan joera hori indartu egin zen.<sup>60</sup> Inflazioaren eragina gehituta, urte hauetan guztietan langileek eros ahalmena galdu zuten. Neurri hauen ondorioz, langileen soldatak oso motel hazi ziren.

---

<sup>57</sup> *Ibid.* 28

<sup>58</sup> MALUQUER DE MOTES, J. *La economía española en perspectiva histórica*. Barcelona: Pasado & Presente, 2014. 370

<sup>59</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. “Liberalización como...”. 29

<sup>60</sup> HERRERO, J.L. “Las Relaciones de Trabajo” IN: ETXEZARRETA, M. (koord.) *La Reestructuración ...* 383

Ekoizpenaren hazkundearen azpitik igo zirenez, enpresarien soberakina eskuratzeko kuota handitu zen.<sup>61</sup>

Politika fiskalari dagokionean, zamatzea handitu zen, defiziti publikoari aurre egiteko. Presio hori batez ere, zeharkako zergen igoeraren eta errentaren gaineko zerga tasa handiagoa ezartzearekin egin zen. Gainera, iruzur handia ez zen tentu handiz ikertu, eta ondorioz, pisu fiskal gehiena langileen gain erori zen. Aldi berean, gastu soziala eta langabezia prestazioak murriztu ziren, teoriarik gabeko gastu publikoa mantentzeko. Baina langileentzako babes soziala murrizten zen bitartean, enpresentzako diru-laguntzak handitu ziren, sistema publikoaren defizita handituz. Estatuaren diru-kutxetan sortzen ari zen zulo handiari aurre egiteko, zor publikoa emititu zen, gehiena finantza sistemako enpresen esku geratu zena. Laburbilduz, langileen gaineko zama fiskala hazi zen eta bitartean zor publikoaren bidez, tituluak zituzten eliteei zergadunengandik ateratako baliabide publikoen transferentzia erraztu zen. Eta hori gutxi balitz, tituludunei desgrabazio fiskalak eman zitzaizkien. Neurri hauek, beraz, kontraesankorrak ziren eta izaera klasista zutela esan daiteke.<sup>62</sup>

Doitze makroekonomiko honen ondorioz, 1981etik 1985era bitarte, miloi erdi lanpostu suntsitu zen, soldadak murriztu egin ziren, ekonomia gelditu zen eta defizit publikoa izugarri handitu zen. Hala ere, atzerri defizita murriztea eta inflazioa mantsotzea lortu zen.<sup>63</sup>

#### -4.2. Ekoizpenaren doiketa eta onbideratzea

Neurri hauen helburua ekoizpenaren egituraren onbideratzea zen. Ekoizpen egiturak eta sektore batzuetan erabilitako teknologiak zaharkiturik geratu ziren eta egin beharreko aldaketan kostua gizartearen gainean (estatuaren gastuaren bidez) eror zedin bilatu zen. Erabaki pribatuek sorturiko galerak, sektore publikoak bere bizkar hartu zituen. Hiru esparru nagusitan egin zen birmoldaketa: sektore industrialean, energia sektorean eta finantza sektorean (industria sektoreari oso loturik zegoelakoz).

1983 eta 1984an gobernuak industriaren birmoldaketa plana aurrera eramanez. Frankismoan zehar Espainiako industria, teknologia ertaineko eta

---

<sup>61</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. "Liberalización como...". 29-30

<sup>62</sup> *Ibid.* 31

<sup>63</sup> *Ibid.* 32

energia kontsumo handiko sektoreetan oinarritu zen. Sektore hauek zaharkiturik zeuden, frankismoaren babesaren barnean eroso sentituta ez lehiatzera ohitu zirelako, eta zenbait enpresa era ezegokian handitu zirenez, horietako batzuk gairak gaiturik zeudelako. Oso oinarri ahuleko sektoreak zirenez, krisia ailegatzerakoan kolpe latza jaso zuten. Gainera, Asia hego-ekialdeko eta Europako ekialdeko industri berriek lehia gogorra egiten zioten Espainiako industriari.<sup>64</sup> Etorkizunera begira ekonomia modernizatu eta eskaria eta eskaintzaren arteko orekara egokitu behar zela argudiatu zen. Hala ere, zenbaiten ustez, industria birmoldaketa hau EEEn sartzeko kide ziren zenbait herrialderen bete beharreko aurrebaldintza bezala kontsidera daiteke. Izan ere, Espainiako enpresek Europako zenbait enpresei lehia egin ziezaiketen. Hiru neurri nagusi hartu ziren: enpresen desagertze hutsa, enpresa eta estatuaren arteko akordioak, eta industria birmoldatze planak. Bereziki sektore helduei eragin zien (ontzigtza, siderurgia, meatzaritza eta oihergintza).<sup>65</sup> Oso prozesu gatazkatsua izan zen hau, lanpostu ugari desagertu baitzen denbora laburrean eta estatuarentzako gastu handia suposatu zuen.<sup>66</sup> Europarekin alderatuta birmoldaketa hauek beranduxeago egin ziren, ezker zein eskuinetik erresistentzia handiagoa baitzegoen.<sup>67</sup>

Sektore energetikoaren doitzaren jatorria arestian aipatu dugun UCDren gobernuaren neurrietan zegoen. Enpresa elektrikoak petrolioaren prezioaren igoeratik oso garestiak ziren planta nuklearrak eraikitzen tematu ziren. Gobernuak babesa eman zien, energia eskaera handitu egingen zelakoan. Baina 1980 eta 1984 artean, aurrezkiarekin eta ekoizpenaren uzkurtzearekin batera energia eskaera gutxitu egin zen. Berehala, plan nuklearra errentagarria ez zela argi geratu zen. Bukatugabeko azpiegituren kostua eta hauek ordaintzeko zorren interesak, Solchaga ministroaren proposamenaz, zergapekoen eta kontsumitzaileen gain erori ziren berriz ere. ENDESA enpresa publikoak zenbait zentral bere egin zituen eta kontsumitzaileei kanon nuklearra ezarri zitzaion.<sup>68</sup>

---

<sup>64</sup> MALUQUER DE MOTES, J. *La economía española* ...379, 404


<sup>65</sup> *Idem.*

<sup>66</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. "Liberalización como..." 32-33

<sup>67</sup> MALUQUER DE MOTES, J. *La economía* ... 364

HERRERO, J.L. "Las Relaciones..."383

<sup>68</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. "Liberalización como..." 33



**Iturria:** TAMAMES, R. *La Economía Española 1975-1995*. Madrid: Ediciones Temas de Hoy, 1995. 593 orrialdeko datuetatik egina.

Finantza sektorean egin zen doitzea begiratzuz, inbertsioak krisiak kalteturiko sektoreetan kontzentraturik zeuden. Hura hondoratzean, finantza sistema bere atzetik eraman zuen. Beti bezala, sektore honen galerak estatuaren diru-kutxetatik ordaindu ziren. Berrantolaketa honen ondorioz kompetentzia desagertu eta sektorea asko kontzentratu zen.<sup>69</sup>

#### -4.3. Kapitalismoaren arau berriak

Gobernu sozialistak bestelako egiturazko erreforma batzuk ere egin zituen, gehienak liberalizazioaren joera orokor nagusiaren baitan.

Lan merkatuari dagokionean kontratazioa eta kaleratzea errazten zuen legedia onartu zen, enplegua haziko zelakoan. Baina efektua ez zen horrelakoa izan. Aldaketok hazkunde garaietan jende gehiagok lan egitea ahalbidetu zuen eta beheraldietan, aldiz, gutxiago. Orokorrean sistema ekonomikoaren ezegonkortasuna hazi egin zen eta enpleguak aldaketa ekonomikoekiko sentsibilitate handiagoa edukiko zuen. Eskulanaren kostua jaitsi zen, enpresarien onerako.<sup>70</sup>

<sup>69</sup> *Ibid.* 34

<sup>70</sup> HERRERO, J.L. "Las Relaciones..." 388

Finantza sistema arautzen zuen legedia ere “liberalizatu” egin zen. Baina liberalizazioa honek sektorea kontzentratu zuen, lehiakortasun gutxiagoko sektorea eratuz, finantza sektorean egin zen doitze planaren joera indartuz.<sup>71</sup>

Garai honetan guztian, sektore publikoaren pisua handitu egin zen, krisiaren kostua sozializatzeko egindako eginahalen bidez.<sup>72</sup> Orokorrean, errentagarriak ziren enpresa publikoak pribatizatu ziren eta ez zirenak publiko bihurtu. Sektore publikoa nabarmenki zabaldu zen arren paper pasiboa hartu zuen, aktiboa beharrean, bere lana birbanatzera mugatuz. Ondorio nagusia zerbitzu sozialen kalitatea okertzea izan zen. Sektore publikoa ailegatzen ez zen toki horietara, sektore pribatuaren merkatu aukera ireki zen, kontsumitzaileentzako zerbitzua garestiago eskainiz, jakina.

Gainera, Espainiako ekonomia atzerrira zabaltzeko esfortzu handia egin zen. Horren froga adierazgarriena 1985ean EEEn sartzea dugu. Orduetik aurrera herrialdearen ekonomia nazioarteko egoerarekiko menpekoagoa izanen zen eta politika ekonomiko subirano eta propioa bultzatzeko mugak izanen zituen. Kanpo kapitalen inbertsio gehiago erakarri ziren, baina inbertsio hauek zetozen hamarkadetan batez ere sektore espekulatuzailetan zentratu ziren eta ez ziren bideratu sektore produktiboetara. Kapitalismo nazionalak sektore klabeen kontrola galdu zuen. Espainiako ekonomia zenbait sektoretan espezializatu zen: automobilgintzan, petrokimikan eta turismoan.<sup>73</sup> Maluquerren arabera Espainia autoen esportaziorako plataforma bilakatu zen.<sup>74</sup>

#### -4.4. PSOEren gobernuaren politika ekonomikoaren ondorioak

PSOEren gobernuak hartu zituen neurrien ondorio zuzenena enpresarien mozkinaren berreskurapena eta handitzea izan zen. Orokorrean, krisiaren kostua langileen gain erori zen. Gainera, soberakinaren parte bat soldatetatik kapitalen errentetara pasartzeko mekanismoak eratu ziren. Bestalde, soldaten negoziazio markoa aldatu zen eskulana merkatu zuena.<sup>75</sup>

---

<sup>71</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. “Liberalización como...” 37

<sup>72</sup> *Ibid.* 34-35

<sup>73</sup> *Ibid.* 40

<sup>74</sup> MALUQUER DE MOTES, J. *La economía española...* 405

<sup>75</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. “Liberalización como...” 41 HERRERO, J.L. “Las Relaciones...”385

Ondorioz, gizarte bereizketa handitu, ezberdintasunak igo eta jarrera jendearen indibidualistak indartu ziren. Gizartean elkartasun gutxiago, langile klasearen zatiketa eta sindikatuen ahultzea gertatu ziren. Horrek enpresariak presio ahalmena handitu zuen eta langileen egoera okertu. Bizitza kalitatea norberaren eginahalei dagokiolako ideia barneratu zuen gizarteak, eta porrot ekonomiko-pertsonala sistemak sortzen zituen ezberdintasunei zegozkiola ahaztu zen. Azken finean, sistema kapitalistak legitimitatea irabazi zuen. Botere ekonomiko eta politikoaren arteko lotura berriak eratu ziren.<sup>76</sup>

Alderdi Sozialistarentzako erraza izan zen ikuspegi sozialdemokratatik liberalizazioaren aldeko arrazoiak ematea. Baina bere diskurtsoa kontraesanean erori zen. Izan ere, liberalizazioaren eta enpleguaren aldeko argudioak ondorioak zenbait aldagairen menpekoak dira. Liberalizazioak kapital metaketa erraztu arren ez zuen esan nahi inbertsio pribatuak zuzenean enplegua sortuko zuenik.

Politika ekonomiko hauek guztiak sindikatu nagusien konplizitatearekin egin ziren. Hitzarmen sozialaren garaia zen eta erreforma hauek guztiak aurrera eramateko eta bake soziala bermatzeko akordio ugari sinatu ziren.<sup>77</sup> Baina, kontzertazioak eta politika neoliberalak sindikatuen indarra ahultzeko joera dute, teoriarik agente sozialek berdintasunean negoziatzen duten arren, enpresariak gobernuaren gain presioa egiteko bestelako mekanismo informalak dituztelako. Ezberdintasun ekonomikoak handitu ziren eta Alderdi Sozialistak bozka eman zion langile klasearen aurkako neurriak egin zituen.<sup>78</sup>

Beraz, PSOEren estrategia ekonomikoa bere justifikazio teorikoaren aurkakoa izan zen. Kapitalaren interesak indartu eta gizarte justuago eta solidarioago bati atea itxi zitzaion.<sup>79</sup> Paradoxikoa dirudien arren ezkerrek egin behar izan zuen eskuinak egin ahal izan ez zuena. Aipatu ditugun erreforma hauek guztiak UCDekin egin izan balitu, sindikatu eta langile alderdiengandik erreazio askoz ere handiagoa jasoko zuen, baina teoriarik nominalki ezkerreko izena zuen alderdi batek, sindikatuen oniritziak, egin zituenez langileek erreformak gogo hobez hartu zituzten.

---

<sup>76</sup> *Ibid.* 36-37 eta 41

<sup>77</sup> Acuerdo Nacional para el Empleo (1982), Acuerdo Interconfederal (1983) eta Acuerdo Económico y Social (1985-1986). TAMAMES, R. “*La Economía ...*” 550

<sup>78</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. “Liberalización como...” 42

Editorial. “El desconcierto del PSOE y la gran coalición.” In: *Mientras tanto*, 38 zbk., Bartzelona: 1989ko udaberria. 11

<sup>79</sup> GONZÁLEZ CALVET, J. “Liberalización como...” 42

Baina 1985etik hitzarmen soziala kolokan jartzen hasi zen. Urte hartan, ekainaren 20an, CCOOek greba orokor bat antolatu zuen eta UGT eta PSOeren arteko joera gaiztotzen hasi zen.<sup>80</sup> PSOeren politika neoliberalak bi sindikatuen ekintza batasunerako giro egokia sortu eta 1988ko abenduaren 14ko (14D) greba orokorrera eraman zuen.

AEBetan eta Europa mendebalde gehiengan 1983tik berreskurapen zantzuak ageri ziren, 1985erako gobernuak krisia gainditzen hasia zela ospatu zuen.<sup>81</sup> Baina Espainian 1986ra arte ezin daiteke hitz egin hazkunde sendo baten itzulera. Hala ere, ez dirudi orduan ere hazkunde hori orekatua izan zenik.

Langabezia 1986ra arte hazi zen. Enplegua batez ere, industrian (birmoldaketagatik kaltetuena) eta nekazaritzan (mekanizazio eta modernizazioagatik) suntsitu zen. Zerbitzuetan, aldiz, sektore publikoa asko zabaldu zenez eta tertziariozazio prozesua gertatu zenez, ez zen horrenbeste lanpostu desagertu.

## 5. Ondorioak

Miren Etxezarretak *La Reestructuración del Capitalismo Español, 1970-1990* liburuaren sarreran krisi garai honekin Espainiako kapitalismoa berregituratu egin zela esaten du.<sup>82</sup> Nazioartean, berregituraketa horren ondorioz ekoizpen modu fordistatik postforditara (edo toyotistara) pasatu zen. Bestalde, estilo neokeynestarreko politika ekonomikoak aplikatuz kutsu neoliberalerako neurriak aplikatzerako ziklo aldaketa bat eman zen. Mikroelektronikoaren ondorioz, etxeak kontsumo ondasun berriez bete ziren: erloju digitalak, bideoak, kreditu txartelak eta abar.<sup>83</sup> Espainian ere, antzeko zerbait gertatu zen: frankismoaren ekonomia interbentzionista izatetik, mendebalde osoan orokortu zen ekonomia neoliberalera igaro zen. Baina bi baldintzatzaile garrantzitsurekin: krisiaren hasieran, Europa kapitalistako beste herrialdeetako ekonomiarekin alderaturik Espainia dezente atzeratuago zegoela eta ezegonkortasun politiko nabarmena zeukala.

---

<sup>80</sup> MALUQUER DE MOTES, J. *La economía española...* 371

<sup>81</sup> *Idem.*

<sup>82</sup> ETXEZARRETA, M. "La Política económica..." 33-36

"Cambio fundamental en las estrategias de acumulación" esamoldea erabiltzen du

<sup>83</sup> MALUQUER DE MOTES, J. *La economía española...* 360

Bestalde, krisi ekonomikoko garai bat izan zen arren, harrigarriki, Espainiako “ongizate estatua” orduan eraiki zen. Gainera, krisi horretatik ateratzeko eginiko erreformen bidez, Espainia EEEn sartzeko prestatzen hasi zen. Urrezko aroko hazkundearekin eta erreforma hauen bidez merkatu komunean sartzeko eta Europarekin konbergentzia bidean jartzeko prestatu zen herrialdea. 1985an akordioa sinatu eta 1986an sartu zen. Konbergentzia hura, garai hartan izugarri ospatu zen, Espainiako ekonomiaren arrakastaren ikur gisa. 2007an abiatu zen beheraldi ekonomikora arteko eredu ekonomikoaren oinarriak Hala ere, gaur egun, konbergentzia gertatu zela esan daitekeen arren, ustezko arrakasta hori berriro ezbaian dago.

Hasieran esan dugun bezala, Espainiako imaginario kolektiboan garrantzi handiko garai izan zen hau. Gertakari historiko honen inguruan “Trantsizioaren Kultura” deiturikoa eratu zen. Prozesu historiko hau, modu interesatuan, kontsentsuzko garai baketsua eta prozesu eredugarri modura erakutsi izan da. Baina, ez dugu ahaztu behar oso gatazkatsua izan zela. Maluquerren arabera, biolentziazko 3200 gertakizun baino gehiago eta 700 hildakotik gora izan ziren.<sup>84</sup>

1986tik aurrera, Espainiako ekonomia hutsune handirekin garatzen jarraitu zuen zetozen hamarkadetan. Hazkunde mota honek gainera, ezberdintasun sozialak, enplegu prekarioak eta mailegu bidezko kontsumo arriskutsu bat ekarriko zituen. Horregatik, besteak beste, orduan sortu zen sistema akumulatibo berriak duda ugari sortu zituen eta sortzen ditu oraindik.<sup>85</sup> Orduan erabakitako politika ekonomikoek gaur arte ailegatu den eragina izan dute.

## **6. Bibliografia eta bestelako iturriak:**

ANDRADE BLANCO, J.A. *El PCE y el PSOE en (la) transición*. Madril: Siglo XXI, 2012.

CATALÁN, J. “Del “milagro” a la crisis la herencia económica del franquismo” IN: ETXEZARRETA, M. (koord.) *La Reestructuración del Capitalismo Español, 1970-1990*. Madril: Fuhem, 1991. Bartzelona: Icaria, 1991.

---

<sup>84</sup> Ibid. 362

<sup>85</sup> ETXEZARRETA, M. “Introducción. La Política...”. 35-36



ETXEZARRETA, M. “La Política económica del Proceso de Acumulación.” IN: ETXEZARRETA, M. (koord.) *La Reestructuración del Capitalismo Español, 1970-1990*. Madril: Fuhem, 1991. Bartzelona: Icaria, 1991.

GONZÁLEZ CALVET, J. “Transformación del sector público e intervención en la economía.” IN: ETXEZARRETA, M. (koord.) *La Reestructuración del Capitalismo Español, 1970-1990*. Madril: Fuhem, 1991. Bartzelona: Icaria, 1991.

GONZÁLEZ CALVET, J. “Crisis transición y estancamiento. La política española, 1973-1982.” IN: ETXEZARRETA, M. (koord.) *La Reestructuración del Capitalismo Español, 1970-1990*. Madril: Fuhem, 1991. Bartzelona: Icaria, 1991.

GONZÁLEZ CALVET, J. “Liberalización como estrategia socialdemócrata.” In: *Mientras Tanto*, 38 zbk., Bartzelona: Icaria, 1989ko udaberria, 23-42

HERRERO, J.L. “Las Relaciones de Trabajo” IN: ETXEZARRETA, M. (koord.) *La Reestructuración del Capitalismo Español, 1970-1990*. Madril: Fuhem, 1991. Bartzelona: Icaria, 1991.

MADDISON, A, *Las fases del desarrollo capitalista. Una historia económica capitalista*. Mexiko: FCE, 1986.

MADDISON, A. *The World Economy in the 20<sup>th</sup> century*, Paris: OCDE, 1989.

MALUQUER DE MOTES, J. *La economía española en perspectiva histórica*. Bartzelona: Pasado & Presente, 2014.

SEGURA, J. “Del primer Gobierno socialista a la integración en la CEE: 1983-1985” IN: GARCÍA DELGADO, J.L.(zuz.). *Economía Española de la Trascición y la Democracia*.Madril: CIS, 1990.

TAMAMES, R. *La Economía Española 1975-1995*. Madril: Ediciones Temas de Hoy, 1995.

### **Bideoak:**

ANDRADE, J.A. “Otra Vuelta de Tuerka - Pablo Iglesias con Juan Andrade (programa completo)” On line elkarrizketa. *YouTube*, 2014ko abenduaren 21a. Web. 2015eko otsailaren 20an kontsultatua. <https://www.youtube.com/watch?v=jYpGWGodpgA>

### **Web orriak:**

Enpresarien Elkarteen Espainiako Konfederazioaren (CEOEren) webgunea. [http://www.ceoe.es/ceoccat-164-que\\_es\\_ceoe.html](http://www.ceoe.es/ceoccat-164-que_es_ceoe.html) (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua)

Espainiako Enpresa Txiki eta Ertainaren Konfederazioaren (CEPYMEren) webgunea. <http://www.cepyme.es/es/que-es-cepyme/> (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua)

*Mientras Tanto* aldizkariaren webgunea. <http://www.mientrastanto.org/> (2015eko ekainaren 17a)

### **Hemeroteka:**

DE LA CALLE, A.L. *El País*. 1978ko otsailaren 28a. [http://elpais.com/diario/1978/02/28/espana/257468409\\_850215.html](http://elpais.com/diario/1978/02/28/espana/257468409_850215.html) (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua)

*El País*. 1978ko otsailaren 25a. [http://elpais.com/diario/1978/02/25/espana/257209204\\_850215.html](http://elpais.com/diario/1978/02/25/espana/257209204_850215.html) (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua)

*El País*. 1978ko otsailaren 25a. [http://elpais.com/diario/1978/02/25/espana/257209242\\_850215.html](http://elpais.com/diario/1978/02/25/espana/257209242_850215.html) (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua)

*El País*. 1978ko otsailaren 25a. [http://elpais.com/diario/1978/02/25/espana/257209203\\_850215.html](http://elpais.com/diario/1978/02/25/espana/257209203_850215.html) (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua)

*El País*. 1980ko urtarrilaren 6a. [http://elpais.com/diario/1980/01/06/economia/315961207\\_850215.html](http://elpais.com/diario/1980/01/06/economia/315961207_850215.html) (2015eko ekainaren 17an kontsultatua)

IZQUIERDO, J.M. *El País*. 2014ko abuztuaren 29an. [http://politica.elpais.com/politica/2014/08/29/actualidad/1409304456\\_399099.html](http://politica.elpais.com/politica/2014/08/29/actualidad/1409304456_399099.html) (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua)

VAQUERO, J.M. *El País*. 1978ko otsailaren 28a. [http://elpais.com/diario/1978/02/28/espana/257468408\\_850215.html](http://elpais.com/diario/1978/02/28/espana/257468408_850215.html) (2015ko maiatzaren 21ean kontsultatua)